

zuk jarri ideia,
guk tresnak jarriko ditugu



autoenplegu-zerbitzuak

 **BBK GAZTE LANBIDEAN FUNDAZIOA**
Ledesma 4-4.a 48001 Bilbo • Tel: 94 423 26 12
www.bbk.es


gaztelanbidean
bbk

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
beirtoa

2006ko URTARRILA
84. zkia. DOAN

**Sei Izar herri krosa
Berbalaguna eskoletara
Alain Urizarren liburua**

Natxo Montero

**"Euskal Herrian
ez dago dantza
garaikidea ikusteko
ohiturarik"**



Uribarriko baserriak (1890)

Erretratu horretan Ibaizabal ibaia eta gaur egun Bilboko Udaletxea dagoen lekua ikusten dogu. Behean, eskuinean, Quintana jauregi sendoa -antxineko Markina torrea izan zana- eta haren alboan, ezkerrean, orube bat dago hutsik. Ha San Agustin komentua egon zaneko lekua da. Bertan Udaletxea eraiki eben 1892an. Atzerago, Uribarriko baserri eta txakolindegiak. Ikustekoa da Artxandako hegiak zelan dagozan biluz-biluzik.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Sei Izar herri krosa	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea ..	8	▶ Hezkuntza	26
▶ Adiskidetasuna eskaut taldea	10	▶ Orisol mendia	27
▶ Berbalaguna eskoletara	12	▶ Alain Urizarren liburua	28
▶ Elkarrizketa: Natxo Montero	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Jantzan dabil jentie gurien, portadan fandagoagaz hasi ta teatro handidxetan akabau daben bat. Naturala, gaurko dantzaridxek hainbeste boda, inagururaziño, homenaje ta halangoakaz jesukriston praktikie eitten daurie, holan akabuen teknikie dominau, baie ederto baten gero! Lastima horreik jantzan danak sueltoak ixitie, arrimatekoan praktikau ezkerroan teatroan barik beste ainbaten akabaten da ta.

Kroseroak be jantzan imini deittuez hankak. Kontue honeitariko askok urtien behin baino ez dauriela jantzan eitten ta teatro handidxetan barik Osakidetzako kontsultan akabaten dauriela. Hori bai, gero lesioakaz presumidu: "Belaune jodidute dekot, bakizu ba, gu ateletok...". Iguel hametik aurrera antidopiñegaz batera medikuen zertifikau be eskatu biherko jakie ateletori, disgustuek ebitatieren gehien bat.

Mine jantzan iminten hasi direz aitte ta ama batzuk be. Umiek librau ta hareik abarketieri emoteko, euskerie ikistieren edo. Ondo, ondo, baie gero umie ikastolatik deberiekaz laguntziño eskien datorrenien ez daurie eukingo eskakieteko atxakiarik. Da umiek gurasoakaz euskeraz eitteko be ez.

Gero umiek institure ailegaten direzenien da liburuiek leituden hasi biher daurien orduen, ikusiko doguz komedidxek.

Eskerrak honeik irakurlearen tartekoak serbisio elegantie deukiela montaute. Frankil, eskritorie ekarrikotzugu horreik dudek preguntateko ta umieri aklarateko. Oingoan porrejenploan Pasaiko portuen zelan eitten dan berba esplikateko moduen egongo littikez batzuk Koldo Izagirrerri entzunde. Edo berton juntaten direzen espezialistek elegantementien esplikauko dotzue Begoñazpin bustue imini dotzien Otxandixoko hori nor zan. Ze hor literaturien lakrendelakren juntaten ei dabil. Neu be liburuok leituden hasteko dezididute nabil ba.

Da umiek estudianten akabau ta bihera topaten akabaten dabenien, aitte da amak bertoko batek eskribidu daben liburue leitudute, umieri biheran ta enpresien munduen zelan ibili biher dan gidateko kontsejo onak be emoteko moduen egongo direz, ta iguel umiek kontsejuek hartu, praktiken imini ta gurasoak erretirau futbolistie ixin barik.

Tire ba, jantzan gabiltzez danok ba. Zurbaranbarrin 25 urtien ibili direz eskautek jantzan ta boieskauban disfrazajantzi barik. Boluetan etziek be ibili diren jantzan,... da honegaz hotzagaz, zelan ez gara ba jantzan ibiliko! Batzuek biribilketta, beste batzuek tangoa, eta beste batzuek menceopakime-neopalla

GURE BAZTERRAK

REMIGIO GANDASEGI ARTZAPEZPIKUAREN KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizatearen eta Bilboren arteko lehengo muga-mugan daukagu Remigio Gandasegi Artzapezpikuaren kalea, egin-eginean bere, gaur egungo Santutxu auzoan. Izen nahiko barria dogu hau, kalea bezain zaharra, 1972. urtean bataiatu zalako egin barri zan etxe-multzo hau, Begoñako Karmel eleizatik hur-hurrean. Kale hau doa Iturribide eta Zabalbide kaleen bidegurutzetik Fagoaga ahotszoliaren kaleraino.

Remigio Gandasegi Gorrotxategi 1871. urtean jaio zan Galdakaon, eta 1937an hil Valladoliden. Beraren bizitzaren zertzeladarik garrantzitsuenak jarraian aitatuko dodaz.

Abade egin zan 22 urteaz, 1893. urtean, Gasteizko Abadegaitegian ikasi eta gero. Kalonje lana irabazi

eban oposizinoz geroago Zaragozako katedralean, eta 1905. urtean Indar Militarren gotzain edo apezpiku izentau eben. Handik 9 urtera, 1914an, Segoviako gotzain izentau eben, eta 1920. urtetik eta hil arte, hau da, 1937a arte, Valladolideko artzapezpiku edo gongotzain izentau eben.

Oso ezaguna izan zan bitzta osoan zehar egindako pastoreko lanagaitik. Valladoliden, batez be, Aste Santuko prozesinoei beste itxura eta garrantzi bat emon eutsen, eta ia hilda egotetik ospetsu bihurtu zituan Gaztelako uriko ekitaldi horreek. Gizakume onbera izan zan, eta Valladoliden izen handia hartu eban txioren auzoetara sarritan egiten zituan bisitakaitik, izan bere, leku hareetako behartsuen beharrianei arreta berezia egiten eutsen, eta hareentzako laguntasuna jadetsi ahal ebanetan.

GOTZON LOBERA REVILLA

Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrodo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Berto Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2006ko urtarrila - 84. zkia.



Sei izar krosak jendez bete zituen berriz ere Santutxuko kaleak

IRABAZLEAK JON SALVADOR, INMA RAFAEL ETA
LOLI BENITEZ IZAN ZIREN

Urtero legez, errege egunarekin batera, Santutxuko kaleak jendez bete ziren Sei Izar lasterketan parte hartzeko edo korrikalariak euren ibilbidean txaloekin eta oihuekin animatzeko. Seiehunen bat atletak egin zituzten ibilbidearen zazpi kilometro eta erdi.







*Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona*



Sei Izar Krosak, bere XXVIII. edizio honetan, aurreko urteetako arrakasta errepikatu eta 600 partaidetik gora izan ditu. 597 izan ziren hamalau urtetik gorakoak eta beste 100 partaide inguru 14 urtetik beherakoen kategorian korritu zuten. Bigarren kategoria horren partehartzaile kopurua beste urte batzuetakoa baino baxuagoa izan da, agian krosaren aurreko egunetan eguraldia lar ona ez zelako izan eta horrek gaztetxoek parte ez hartzea eraman zituelako. Santutxuko Auzo Elkarteak azkeneko urteetan gertatu den adin honetako partaide kopuruaren jaitziera aztertu nahi du hurrengo edizioetarako.

Sei Izar krosa antolatzen duen Santutxuko Auzo Elkarteak harro aldarrikatu du Bizkaian gelditzen den doako herri lasterketa bakarra dela eta parte hartzaile guztiek saria lortzen dutela, sailkapenari begiratu gabe.

Giroa, aurreko urteetan bezala, aparta izan zen eta batez ere helmuga inguruan bildu zen jende multzo handia. Jendearen erantzunari aurreko urteekin konparatuz auzoko kaleetan trafiko arazo gutxiago eman zirela gehitu behar zaio, aurtengo krosaren arrakasta zalantza barik baieztatu ahal izateko.




SAILKAPENAK:

Gizonezkoetan:

- 1. Jon Salvador
- 2. Mikel Fernandez de Ganboa.

Andrazkoetan:

- 1. Inma Rafael eta Loli Benitez.



Garraioak

Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatxoak eta pintxo goxoak

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKERA

Ibaizabaleko ibarrean, XVIII. mende akabuan, Bizkaiko lehenengo eraikin industrial modernoa altxarazi zuten: Pontoiko irin fabrika eta okindegia. Harri sendoez eginda, bide laburra urratu zuen, XIX. mendeko gerrek ibilbidea trabatu zioten eta. Gaur egun, bertan dago, lerdan, Abusu ikastola.

PONTOIKO FABRIKA SUTAN


XVI. mendetik Bilboko Udalak errota bat eduki zuen Pontoian, Ibaizabaleko ur ertzean baina Begoñako lurretan. Bada, 1794an Alejo Miranda arkitektoak irin fabrika eta okindegia egin zuen bertan, Bilboko udal kargudunen aginduz.

Iturri batzuen arabera, eraikin eder hori Hirurte Konstituzionalan jarri zuten

lehenengoz helburu militar gisa. 1821ean Fernando Zabala eta Gezala abadeak gidatutako matxinada antiliberalak Bilboren kontra eraso jo zuen. Larreagaburu gainean agertu ziren eta, batzuen iritziz, helburuetako bat Pontoiko fabrika eta errota zen. Hala ere, Bilbo barruko isilpeko laguntzaileak ezin harremanetan jarri eta plana bertan behera utzi behar izan zuten.

1833ko urrian lehenengo gerra karlista iziotu zen. Bilbo matxinatuen esku gelditu zen azaroaren akabuan Sarsfield jeneralaren armada boteretsua bertara heldu zen arte. Harrez gero, liberelek Bilbo euren ikur bilakatu zuten eta gerran zehar egindako setio ahalegin guztiak gainditu zituzten. Karlistak ez ziren Bilbon sartu ez gerra horretan ezta hurrengoan ere. 1937ko ekainean lortu zuten azkenean, Bilbon garaila sartzea. Baina ordurako beranduegi zen.

Atzera be lehenengo gerra karlistara itzulita, 1833ko abenduan Zumalakarregi euskal karlisten buruzagi gisa



Fabrika zaharreko hondarrek urte asko eman zuten hutsik.

onartu zuten lau herrialdeetako diputazio matxinatuek. 1834tik aurrera Ormaiztegikoa gerrilla taktika bikain baten bidez behin eta berriro nagusitu zen liberal jeneral guztien aurka. Matxinatuen mutil multzoak gero eta handiagoak ziren; erasoak, oster, gero eta ausartagoak.

1834ko udagoiengan Bilboren kon-

trako erasoak hasi ziren. Urrian Kastor Andetxagak Abando hartu zuen eta Simon de la Torre larrabetzuarra Artxandatik behera jaitsi zen bere mutilakaz baina hiribildukoak konturatu ziren eta plana zapuztu zen.

1835ko urtebarri egunean karlistek Bilbo inguruan segitzen zuten. Ez zen batere segurua liberal armadako kide eta laguntzaileentzat Bilbotik (Zazpi Kaleetatik, alegia) irteeta, mendi-mutil talde txikiak hara eta hona zebiltzalako Deustu, Abando eta Begoñatik. Batez ere gauaz.

PONTOIA SUTAN

Martxoan, karlistek berriz ere euren tropak Bilbo ingurura hurreratu zituzten. Eraso eta Simon de la Torre jeneralak Arrigorriagara heldu ziren eta Andetxaga Kastrexanan paratu zen. Martxoaren 7an karlistak Larreagaburua eta Santutxun zeuden. Goizean goiz, Pontoiko fabrikaren eta Bilboren arteko komunikazioa eten zuten eta, arratsaldean, lantegia eta errota eraso zuten.



Gaur egun eraikin dotore horretan Abusu ikastola dago.

Fabrikaren 36 soldadu zeuden eta defentsa latza egin egin zuten baina karlistei eutsi ezinik azkenean amore eman behar izan zuten. Bilbo barruan 2.000 soldadu liberal zeuden baina armada espainoleko agintariek ez zuten ezer egin. Beldurrak airean zebiltzan, antza, eraso karlistaren ikararen ikaraz. Francis Bacon merkataria ingeles liberalak kontatu zuenaren arabera, Pontoiko soldaduak Larreagaburuko gainera eraman zituzten eta bertan sarraskia egin zuten eurekin. "Euren gorpuzkinak, ebaki eta desitxuratuta, hegaztien jana izateko laga zituzten", idatzi zuen Baconek.

Behin Pontoia hartuta, Eraso jeneralak hala fabrikari nola errotari su emateko agindu zuen. Laster ziren sugarretan eraikin biak. "Hiru eguneko sutearen ondoren bakarrik gelditu ziren eraikinaren eskeletoa eta bere hondarrak, oraindik kea zeriela", argitu zuen ingeles merkataria bere 'Six years in Biscay' liburuan.

Bilbotar liberelek ke haren bidez jakin zuten Pontoiko

soldaduekin eta eraikinekin gertatutakoa. Bilboko Udalak Erreginari zuzendutako gutun baten nabarmendu zuen bezala, Pontoia galduta Bilbo bere herritar eta soldaduei irina eta ogia emateko biderik onena barik gelditu zen. Gainera, fabrikaren eta errotaren bi milioi erreal balio zuten jangaiak eta materialak zeuzkaten. Baconek berak zehaztu zuenaren arabera, egunean 20.000 ano ogi egiteko gauza zen Pontoiko fabrika.

Kolpe latza izan bazen ere, gerra amaitutakoan eraikina berregin eta ogia barik abarketetarako oihala egiten hasi ziren Pontoiko fabrikaren. Ez luzaroan, ordea. Bigarren karlistada ere etorri zen eta beste behin -oraingoan 1874an- su eman zioten. Hor amaitu zen bere lantegi jarduna.

Urte asko eman zituen hutsik fabrikako eskeletoak, noiz birrinduko zain. 1995ean, oster, Abusu ikastolak bere egoitza berria paratzeko hautatu zuen. Eta azken urteotan horrelaxe dihardu, sasoi baten ogi fabrika izan zena hainbeste neska-mutilen ikastola eder bilakatuta.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



ADISKIDETASUNA ESKAUT TALDEA

Arabella, Andra Mari eta Zubaranbarriko gaztetxoek aisialdiaren ezinbesteko laguna

Laster 25 urteurrena ospatuko du Adiskidetasuna eskaut taldeak, maiatz aldean hain justu. Asteburu berezi bat prestatzen dihardute ordurako. Ez dira oso ezagunak, baina luze irautea lortu dute, aisialdia tal-



Testua: Itxaso Perez
Argazkiak: Adiskidetasuna

Eskaut mugimendua ez da berria, azken urteotan beherantz joan bada ere. Adiskidetasuna Eskaut Taldea Euskal Herriko Eskautak koordinatzen dituen barruan dago, Bizkaiko Herrialdeko atalean eta Bilboko Eskuma Ibarra eskualdean.

Duela 25 urte alderdi horretan ez zegoen gazte zein umeentzat elizakoak ez beste gaiak aisialdian jorratuko lituzkeen talderik. Ez Begoñako Andra Mari, ezta Arabella auzo-



etan ere. Andra Mari elizan zebiltzan gazte bik hutsune hori sumatu eta eskaut talde bat sortzea erabaki

deak bitxikeriak diren egungo gizarte honetan. Bertan txiki-txikitatik ibili eta egun begiralea (eta arima esan genezake) den Ziortza Villegasek talde horren ezaugarriak azaldu dizkigu.

zuten.

Hasieran ez zen Zubaranbarrin aritu, bertan Txiki Gazteak aisialdi taldea jarduten zelako, baita Zubarango Eskaut taldea ere. Beraz, Sarrikue, Andra Mari, Remar eta Arabellan egin zituen bere lanak. Duela zazpi urtetik hona taldearen egoera zein zen ikusita (demografia jaitsiera dela eta, ume gutxiago zegoen urtetik urtera) eta Txiki Gazteak eta Zubarango Eskautak

desegin zirela jakinda, zabalpen prozesuari ekin zioten.

BIZIMODU BERRIA

Beste arrazoi bat ume eta gazte gutxiago egoteko izan da gurasoen konpromisorik eza, ez taldearekiko soilik, denari begira baizik. Ez zegoen gaur egun dagoen diru ahalmenik ere. Lehen umeak taldearen eskutian utzi eta mendira joan edo olgetan ematen zuten larunbata. Egunguraso askok txikiparketara eramaten dituzte umeak larunbat arratsaldean, eta goiza merkataritza gune erraldoi batean igarotzen dute. Ondorioz, lanean segitzeko eskaut taldea egoera berri hauetara egokitzuz joan behar izan da.

Larunbat eguerdian egoten dira, 12:00etatik 14:00etara, ez bada irteeraren bat edo zerbait berezia antolatuta dutela. Urtero-urtero, aste santuko oporraldian asteburu bateko kanpaldia eta uda garaian uztailean hamabost eguneko udalekua antolatzen dute.

Adin guztiek daukate lekua Adiskidetasuna taldean. 8 urtetatik 18 urte bitartekoak ateak zabalik daukate. Hala ere, une honetan 8 eta 12 urtera artekoak bakarrik daude. Zergatik? Arrazoi bakarra ez da egongo, baina egungo gaztetxo askok ez diote interesik aurkitzen aisialdi talde batean egoteari. Denetara, 28 ume eta gaztetxo eta 6 begiralek osatzen dute egun taldea.

HERRIA, KULTURA, INGURUA

Eskaut hitza entzunda etor dakiguke burura hierarkizazioa, uniformeak, erlijioa, zorrotasuna... Ez da talde honen kasua, ezta gutxiago ere. Adiskidetasunan ez dago aginterik, ez kargurik ez militar zantzurik txikiena ere. Guztiz kontrakoak, ordea. Eta elizatik irteerako taldea izan arren ez du inolako mendekotasunik.

Hiru zutabeetan datza talde horren lana: heziketa aukera, herri aukera eta fede aukera. Azken hori taldearen dinamikaren, begiraleen eta umeen araberakoa izango da, malgutasunez. Taldea ume guztiei zabalik dago, sinisten dutena sinisten dutela. Beraz, ezin zorrotzak izan arlo horretan.

Adiskidetasuna taldean arlo pedagogikoan eta herri aukeran zen-



Aratustek eta urteurrena

Otsailaren 25ean, eguerdiko 12etatik ordu bietara Zubaranbarriko plazan puzgarriak, hankaluzak, umeentzako jolasak, makillaje gorea (zauriak) eta fantasiakoa, eta tailerrak prestatu dituzte aratustek ospatzeko. Iaz arrakastatsua suertatu zenez, aurten berdin gertatzea espero dute.

Baina 25 urteak ospatzeko asteburu osoko jarduerak antolatzen dabilta. Hauek ez dituzte oraindik zehaztu, bakarrik maiatzaren asteburu batean izango direla eta bai Zubaranbarrin baita Arabellako plazan presente egongo direla. Izan ere, taldearen sorlekuari atxiki nahi diote.

Dena den, inguruko haur zein gazte denok gonbidatuta zaudete egun horietan ordu batzuk Adiskidetasunakoekin goza dezazuen. Eta inork interesik edukiko balu eurekin harremanetan jartzeko, hona hemen taldearen helbidea: Adiskidetasuna Eskaut Taldea Begoñako Andra Mari auzoa, 14 - Ionja, 48007 Bilbo.

tratzten dira gehiago. Edozein gaia jorratzeko jolasaren bitartez egiten dute, batez ere orain haurrak adin txikikoak direnean. Sexualitatea, elkar ezagutzea, taldea ezagutzea, talde lanean ikastea; begirunea, elkarri entzutea lantzea, neska eta mutilak denak elkarlanean aritzea ikasi, batez ere 11-12 urte daukateanean, adin zaila izateagatik. Bide beran, pertsonan ematen diren aldaketak fisiko zein psikologikoak onartzen ikastea ere lantzen dute.

Herri aukerari dagokionez, bertoko kultura eta tradizioak lantzen dituzte. Honen barruan, eta begiraleen hizkuntza mailaren arabera, euskara lantzen dute. "Naturaren gaiak askotan jorratzen ditugu irteerekin, ez mendira bakarrik. Haur txikiak direnean inguruko mendietara

jotzen ohi dugu: Artxanda, Pagasarri...", esan du Ziortza Villegasek.

Nagusiekin Gernikara, Bermeora,... naturaren aldea baina baita alde kulturala ere ikutzen. Baina auzo hauen inguruko herriak eta hauen kultura eta tradizioak ezagutzeari garrantzi berezia ematen diote, eta 'Balearen Jokua' ren bitartez burutu egiten dute.

Nagusiagoak direnean konpromisoaren gaia lantzen dute gehien bat. Ikustarazi nahi diete behin eskaut taldean ibilbidea amaituta, bestelako gauza asko egin daitezkeela. Haurrekin lan egiteaz gain, beste kolaborazio erak badaudela. 'Goitibera' aldizkarian laguntzea, adibidez, edo beste erakunde batzuetan jendea laguntzea: gauzak egiteko gogoa piztuta edukitzea hain zuzen.

AMAK ETA AITAK BE, BERBALAGUNAK

Ume txikien gurasoek euskaraz egiteko lehenengo taldea eratu dute Asapalak eta AEKK



Euskal Herrian lehenengo aldiz, 'berbalaguna' proiektua eskolako gurasoen artera zabaldu da. Asapala euskara elkarte eta AEK urtarilaren erdian hasi dira proiektu horrekin, aita eta amei euskaraz egiteko aukera bat emateko asmoz. Gauzak ondo, irailetik aurrera talde gehiago antolatuko dituzte Txurdinagan eta Santutxun.

Testua: **H. O.**
Argazkiak: **Berton**

Urtarilean talde bi hasi dira. Karmelo ikastolako aita eta amak dira, hamabi denetara. Hirugarren talde bat sortzekotan dago. Multzo bakoitzean, boluntario bana, euskaraz ondo dakiena, bere taldearen arduradun gisa. Kasu biotan, arduradunok ikastolako gurasoak dira.

Taldeok esperientzia berri baten hazia dira. Asapala euskara elkarteak eta AEKK 'Berbalaguna' proiektuan elkarrekin dihardute, euskaldun berriei euskaraz egiteko aukera emateko proiektuan. Aurten Santutxu, Otxarkoaga eta Txurdinagako ehunen bat lagun elkartu dira talde txikietan astean behin

ordubete emateko euskaraz berbetan. "Aspaldian pentsatu genuen ume txikien aita eta ama asko dabiltzala euskaraz egin nahian baina problema bereziak dauzkatela ordutegi aldetik", azaldu du Benito Fiz Asapalako kideak.

Bestalde, gurasoen egoera ere, sarritan berezia da. "Ahozko euskara maila apala bada, ume oso txikiarekin euskaraz arazo handirik gabe molda daitezke. Eta badaukate hiru-lau urte euskaraz jario egoki bat lortzeko eta, horrela, umeak hazten direnean ere harremana euskaraz segitu ahal izateko", argitu du Fizek. Aita eta amek hobekuntza hori lortu ezean,

seme-alabekiko hartu-emanera erdaraz bideratuko da, ia erremediorik gabe.

Idea hori egosten eduki ostean, Hezkuntza saileko Berritzeguneko arduradunengana jo zuten eta, azkenean, Asapalak eta AEKK ikasturte hasieran hiru ikastetxeri eskaini zioten proiektuan parte hartzeko parada: Txurdinaga eskola, Luis Briñas eskola eta Karmelo ikastola. "Hirurek harrera ona egin ziguten -argitu du Berbalagunako arduradun Oihana Ondarrak-, baina kontuz ibili beharra zegoela pentsatu genuen, proiektu hau ez baita, guk dakigula, beste inon egin". Horregatik, ikastetxe bakar

baten egitea erabakizuten, 'esperientzia pilotu' moduan. Karmelo ikastolarekin hastea erabakizuten.

EGOKITZA-PENAK

Funtzionamendua, berez, 'Berbalaguna' proiektuaren antzekoa da. "Talde bakoitzean arduradun bat dago, euskaldun osoa, eta besteak praktikatzera doaz", esan du Fizek. Astean ordubetez elkartzen dira, dela taberna baten kafe baten inguruan solasean, dela paseoan, ... Bereztasuna beste alderdi baten datza. "Gurasoak berbetan dauden bitartean, begirale batek euren seme-alabak jagoten ditu", argitu du Ondarrak. Jakina, begirale euskalduna da eta umeak euskaraz olgetan emango dute ordubete hori.

Oraingo proiektu hau ekaina bitartean garatuko dute. Ondoren, baloratu egingo dute. Hiru atal begiratuko dute, beren-beregi: ea taldeka ondo moldatu diren, begirale zerbitzua ondo funtzionatu duen eta taldekideak ahozko euskara maila hobetu duten. Emaitzak onak badira, datorren urritik aurrera jende gehiago hartuko dute talde bakoitzeko eta talde gehiago antolatu-



ko dituzte. "Den delaren argitua Benito Fizek ez da eskolara antolatuko. Hau aita eta amentzako programa bat da, ez eskoletarako. Beraz, guraso taldeak sortuko dira, zein eskolakoak diren begiratu barik".

SAREA SORTU
Finean, Berbalaguna programaren helburu

Lehenengo eguna

Guk bisitatxo bat egin diegu euren lehenengo egunean. Astelehena da. Arratsaldeko bostetan Karmelo ikastolako Santa Martako lokalaren atean agertu dira. Lau andre eta gizon bat. Seme-alabak ikastolan laga dituzte, jolas-parkean olgetan. Eurakaz Aitor dago, begiralea. Umeak pozarren dagoz.

Taldekideak Oihana Ondarraren azken oharrak entzun ostean, kalera atera dira. Geldialditxo bat BERTONerako argazkia egiteko eta kafetegi batera abiatu dira. Den-dena euskaraz egin dute. Horrelakoxea izango da hurrengo ordubetea, lagun giroan euskaraz lasai-lasai trebatzen.

nagusia gizarte sareak sortzea da, euskaraz funtzionatzen duten harreman bideak. Horixe bera lortu gura du aita-amei beren-beregi zuzendutako programa horrek. "Pertsona horiek euskaraz ezagutzen dute elkar, harremana euskaraz sortu eta garatzen da eta horrela harreman sare bat zabaltzen dugu", gaineratu du Fizek.

Esperientzia pilotu hori abian jartzerakoan, Karmelo ikastolaren eta Kalso guraso elkartearen laguntza eduki dute Asapalak eta AEKK. Etorrizunari begira, programa zabalduko bada arazo larri bat konpondu beharko dute: laguntzaileena. Izan ere, asko izan daitezke mintza praktika egin nahi duten euskaldun berriak baina ez da erraza tal-

santutxuko herriko taberna Iturriaga 96

Gosari bereziak: Kalera 100000 - 100000

Euskal Herria AURREREA!!

Garraizar

Jesus Garindez - Nº 10
Tel. 94 476 0225 - GARRAIZAR - BILBO

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1. 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO



Aita eta amak Santutxuko eskola baten. Gauzak ondo, proiektua irailetik aurrera zabalduko da.

deen ardura hartuko duten euskaldunak topatzea.

AURREKARIRIK EZ

Bila jardun badute ere, euskaltzale mahatsorriok ez dute gurasoei zuzendutako berbalagunaren aurrekaririk. "Esan digute ikastolaren baten antzeko zer edo zer egitekotan ibili zirela -kontatu du Oihana Ondarrak-, baina ez dugu gehiago jakin". Kontua da horrek galdera asko eransten dizkiola proiektuari, oraingoz erantzunik gabeko galderak hain justu.

Edozelan be, proiektuak oihartzun handia lor dezake. Izan ere, azken urteotan gero eta argiago gelditzen ari da umeek euskaraz erraztasunik egiteko eskolaren lana ez dela nahikoa. Iaz Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailaren aginduz egindako ikerketa batek agerian laga zuen euskaltzale eta irakasle askok aurretik inpresio moduan salatutakoa: A ereduak ez du batera euskalduntzen, B ereduko ikasleek heren batek bakarrik lortzen du euskara modu egokian erabiltzea eta, harrigarriena, D eredu euskalduneko ikasleek beste heren

Berbalagunaren arrakasta

Gurasoen berbalagunaz aparte, gaur egun hogeitik gora dira Berbalagun proiektu nagusiaren babesean eratutako taldeak. Denetara, ehunetik gora lagun, astean behin batu eta ordubetez euskaraz praktikatzen ibiltzen dira. Batzuk paseoan, beste batzuek taberna bat topalekutzat hartuta. Badira astero lekuz aldatzen direnak ere.

Gehienak Santutxu aldetik dabilta baina bada talderik Otxarkoagan eta Zazpi Kaleetan. Ezagutzeko errazak dira: kostata bada ere, euskaraz egiten duten lagun koadrila animosoak dira eta. Gehienak, jakina, batuaz dihardute, hemen euskaraz ikasten duenak batuaz ikasten duelako, baina badago talde bat bizkaieraz egiteko.

batek ez dauka euskaraz gutxieneko maila. Ez da nahikoa ume bat ikastolara joatea, euskaldun bihurtzeko. Batez ere, jakina, inguru erdaldunetan. Gurea, esate baterako.

Arazo larri horri irtenbiderik ematekotan ideia asko plazaratu izan dira baina ardatz nagusia bat da: euskalduntzea ezin da eskolaren ardura bakarrik izan. Umeek euskara modu errez eta naturalean erabil dezaten hizkuntza hori eguneroko jardunean arnastu behar dute, ikasgeletatik kanpo.

Eta zeregin horretan ere gurasoen ekarpena handia izan daiteke. Txikitatik euskaraz egiteko ohitura badago, hizkuntza modu naturalean erabiltzen bada hala aita-amen artean nola seme-alabekin, euskara zabaltzeaz gain berbalagun horien gaitasuna handiagoa izango da. Guraso horiek euskaraz trebatzen, eurek ez ezik, euren seme-alabek be gozago jardungo dute euskaraz. Horra hor gurasoen berbalaguna proiektu berriak egin dezakeen ekarpen garrantzitsua. Emaitzak, oraingoz, ikuskizun.


e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

NATXO MONTERO

"Euskal Herrian ez dago dantza garaikidea ikusteko ohiturarik"

Natxo Montero Bilbon jaio zen 1972an. Mahatserria eta Euskal Herria bihotzean badaramatza ere, egun, non bizi den galdetzen zaionean ez daki zer erantzun. Gaztetan Gaztedi dantza taldean hasi zen. Gaur egun Europako eszenatokietan dantzatzen ikus dezakegu. Artista bilakatu da eta haiek bezalaxe, aste bakoitzean Europako hiri diferente baten egiten du lo.

*Testua: Iratxe Ruiz.
Argazkiak: Iñigo Azkona*



Gaztetxo zinenean eskolan hasi zinen dantzan. Hor izan zenuen lehenbiziko harremana mundu horrekin, ezta?

Birjinetxe eskolan ikasten nembilela, eskolaz kanpoko ekintzetan euskal dantzak ikasten hasi nintzen. Garai hartako laugarren mailatik zortzigarreneara egon nintzen. Eskolatik irteterakoan harremana galdu nuen dantzarekin. Euskaltegian sartu nintzen orduan eta inauterietarako dantza prestatu genuen. Kasualitatez Gaztedi dantza taldeko Amaia Angulo zegoen idazkari euskaltegian. Mutilen falta zutenez Gaztedin izena emateko animatu ninduen. 17 urte nituela hasi nintzen Gaztedin, gaur arte.

Gaztedin bost urte eman zenituenean esperientzia berrien bila hasi zinen...

Bai. Euskal Herriko folklorea oso aberatsa da baina azkenean dantzak amaitzen dira. Hori da Gazteditik asko maite dudana gauza bat, dantzak diren moduan mantentzen dituela. Baina mugimendu aldetik zerbaiten falta sumatzen nuen... Bilborock ondoan dagoen Muelle 3 eskolan dantza garaikideko ikastaroak ematen zituztela enteratu nintzen eta ezagutzearren hasi nintzen. Elektrikaria naiz, bitartean dantzarekin zerikusirik ez zuten beharretan nengoen! Gainera urtebete Boliviara joan nintzen. Kaleko haurrei ogibide bat irakasten genien eskola baten ibili nintzen.

Hurrengo bost urteetan elektrizitatea eta dantza uztartu behar izan zenituen...

Hemen dantza ez da ogibide bat. Bi hilabetez lan egin dezakezu, oso gaizki ordainduta... baina ondoan beste lan bat izan behar duzu! Oporrak nituenean turismoa eta prestakuntzarako aprobetxatzen nuen.

Zer ikasi zenuen Bilbon jasotako dantza eskoletan?

Zure gorputza ezagutzen duzu. Zer egin dezakezu berarekin... Dantza garaikidean bakoitzak bere mugimendua du: atzamar bat mugitzearekin hamaika gauza adieraz dai-



tezke! Oso abstraktua da. Tamalez, Euskal Herrian ez dago dantza garaikidea ikusteko ohitura askorik. Deustuko La Fundicion aretoan antzezpenak izaten dira baina ez dago publikorik.

Jendea ezagutzuz joan zinen, proiektu txikietan sartu eta orduan heldu zitzaizun aukera paregabea...

Hala da. Jorge Lastrarekin 'Naranjas del Tiempo' proiektua egin nuen. Interneten audizio baten deia topatu nuen, Frantziako konpainia batek Bartzelonan frogatzea egin behar zuten. 2004ko otsailean izan zen.

Mutil bat behar zuten hiru urteko proiektu baterako. Pisua erosi berria nuen, kredituarekin nengoen eta irakaskuntzan lan ia finkoa nuen... Hala eta guztiz ere, Bartzelonara abiatu nintzen. Astebete geroago hautatu nintzela esateko deitu zidaten eta hamabost egunen bueltan beharretan hasi behar nuen Frantziara, Marsellara: lanera joan nintzen eta egoera azaldu nien. Etxea lagun bati alokatu nion. Horrela izan zen... lana, etxea, familia eta herria uztea erabaki nuen... urteak neramatzan barruan behar hori nuela. Gaztea nintzela eta konpromiso gutxi nituela aprobetxatu nuen.

'Traneuropeanne' proiektuan buru-belarri sartu zinen orduan...

Beste sei pertonekin batera: bost frantziar, italiar bat, katalan bat eta ni. Boterearen inguruko antzezlanak: AEBtako boterea, gizonek emakumeenganakoa dutenaren ingurukoa... ordu eta erdiko lan oso gogorra zen. Bai guretzat fisikoki gogorra zelako eta baita ikusleentzat ere. Gordina, zuzena da. Bukatzerakoan publikoa ez zen txaloka hasten... isilik geratzen ziren denak, asimilatzen denbora behar zuten. Kritika latzak izan genituen! Kreatzioan lau hilabete eman eta gero gira hasi zen

Txekian, Pragan, Polonian eta Finlandian. Garai hartan konpainian lisakarrak hasi ziren eta pieza bertan behera geratu zen. Aurreko beste proiektu bati ekin genion, ordezkaritza lanetarako aukeratu ninduten. Islandian, Danimarkan, Bruselan egon gara. Zuzendariak Polonian beste lan bat abiatu zuen eta bertan izan nintzen iaz. Esperientzia oso interesgarria izan da!

Orain atsedenean zaude baina datozen asteotan lanera ekingo diozu berriro!

Eslovenian izango da lehenengo antzezpena. Momentuan, bi

proiektuek bizirik dira eta horietan nabil. Horregatik, otsailean Poloniara bueltatu behar dut.

Artisten baldintzak askoz hobetoak dira atzerrian.

Frantziar artisten estatutua lortu dut eta horri esker, ekonomikoki lasai nabil. Dantzari kontratu bat da. Ordu kopuru bat lan egin ostean hamar hilabeterako langabezia duzu. Beste ogibideekin antzera bizi daiteke!

Eta hori gutxi balitz lan eskaintzak etengabe heltzen zaizkizu...

Beste konpainia batekin hasi naiz eta birekin lanean nabil. Bata Toulousekoa, bestea Marsellakoa. 70 kilometro besterik ez dago bien artean.

Zorionekotzat du bere burua Natxo Monterok?

Jende askok esaten dit zorte handia izan dudala gustatzen zaidana egiten dudalako. Zortea existitzen da baina landu daiteke. Horrelako momentuetan arraro sentitzen naiz... zerbait nahi duzunean ez da amestu behar, egin behar da!

Girak direla eta egun osoa bidaiari eman behar duzu. Aberrargaria bezain neketsua izango da, ez?

Hasieran oso polita iruditzen zaizu herrialdeak ezagutzea. Gainera turismoa egiteko askotan geratzen naiz dantzatu izan dugun lekuetan. Baina egun osoa motxilarekin ematea oso gogorra da. Bi urte pasatuta ez daukat etxerik. Konpainiak logela jartzen dit, baina hamabost egunetan hiru tokitan egon gaitzake! Egonkortasun apur bat behar du. Eta taldeko gazteena naiz!

Dantzaren inguruan ikasi behar zenuena ikasi duzula uste duzu?

Ez! Oraindik asko daukat ikasteke. Zurrupatu nahi dut, asko ikasi eta etorkizuneari Euskal Herrira bueltatu nire proiektuak aurrera ateratzeko. Posible ez baldin bada, ba beti geratuko zait irakaskuntzaren mundua. Dantzaren munduan hasten nabil, nahiz eta urteak eman ditudan. Proiekturik onena etortzeko dagoela

uste dut, itxaropena daukat behintzat. Bide onean nabil, konpainia potente batean bainago.

Etxean zaudela prestakuntza fisikoarekin jarraitzen duzu ala oporretan soinketa ahazten duzu? Konpainiarekin egun arrunt batean goizeko hamarretan hasten gara beroketekin arratsaldeko ordu bata arte. Arratsaldean egingo ditugun arikentzako prestakuntza baino ez da. Luza-ketak hasieran eta gero mugimenduak; korrika asko egiten dugu gainera. Baina egia esan ez naiz asko zaintzen! Erretzen dut, edaten dut, nahikotxo jaten dut... Eta Bilbora etortzen naizen bakoitzean (hiru hilean behin hamabost egunetarako saiatzen naiz etortzen)

ez dut ezer egiten! Abuztuan hemen egon nintzen jairik jai eta muskulatura galdu nuen... Horregatik lanik ez daukadanean beste lagun batekin kirola egiteko gertzen naiz. Dantzari esker badakit zer arnasketa egin behar dudan txarto sentitzen naizenean! Eskolatan gure gorputza ezagutzen iraka-



tsi beharko lukete. Nahitaezkoa da, ezin dugu gorputzaren kontra joan.

Euskal Herritik aldentzean zaila egingo zaizu senitartekoak eta lagunak uztea.

Oso. Lau loba txiki ditut eta jaiotzean ez naiz hemen egon... bueltatzen naizen bakoitzean bere osaba

ezagutzea gustatzen zait. Eta oso koadri-la ederra daukat Santutxun eta gertatzen denaren berri izaten saiatzen naiz, kanpoan egon naitzela ez nabaritzeko. Beste alde batetik, gaur egun lotura gehienak apurtu ditut. Ez ditut konpromisorik hartzen. Minimorekin bizi naiz, gauza batzuk kentzen dizkit baina horrek askatasun itzela ematen dit. Konpromisoak eta zamak gainera kentzen saiatzen naiz. Hasieran atzerrira joateari beldur nion, orain gainditu dut. Dantza ikasi dut, hizkuntzak, jateko, bizitzeko beste modu bat ezagutu dut, lagunak egin ditut. Komunitate sendo bat sortzen du bizimodu honek. Hezkuntzak irakasten ez duen zerbait da!

Santutxun zaudenean Gaztedin

dantzan jarraitzen duzu. Gero eta mutil gutxiago omen daude, zergatik?

Arrazoia ez dakit. Beti egon da mutilen falta. Niretzat oso garrantzitsua da umeak dantzan hastea benetan nahi dutelako eta gustatzen zaielako, eta ez gurasoek behartzen dituztelako.

Bederatzi galdera labur

Pelikula bat: 'Harry gato negro, gato blanco'.

Abestia: 'Baldorba'.

Leku bat: Urbasa

Zure ametsa: Ez aldentzea nahi ditudan gauzen bidetik

Izen bat: Markel

Liburu bat: 'Particulas elementales'

Janari bat: Indabak

Zure bertute bat: Lagunak egiteko erraztasuna

Eta akatsa: Nonbait ezin gelditzea.

Athleticekin sufritzen ari zara?



MIKEL
(DEUSTU)

BAI, NOLA EZ. BAINA CLEMENTEREGIN EKIPOA AURRERA EGITEKOTAN DAGO. EKIPOA HOBETU EGIN DU ETA NI ERE LASAIAGO NAGO.



IRATXE
(SANTUTXU)

ASKO SUFRITZEN DUT, GUZTIOK BEZALA. BIDE TXARRA HARTU DUGU ETA BELDUR NAIZ EZ OTE GAREN BIGARREN MAILARA JAITSIKO. EA BAI!




MARIA
(SANTUTXU)

ASKO ARI GARA SUFRITZEN. DENBORALDI HONETAN HUTS EGIN DIGU. BAINA ESPERANTZAK DAUZKAGU. BETI GAUDE ATHLETICEKIN, GALTZEN DUENEAN ERE. SALBATUKO GARA.

SERGIO
(SANTUTXU)

EA HOBETZEN DUTEN. NIK ASKO SUFRITZEN DUT.



OIER
(SANTUTXU)

ATHLETIC-ZALEA EZ NAIZ BAINA SUFRITU EGITEN DUT, ZE AITA ETA FAMILIA DANA ATHLETICEKOAK DIRA. GAINERA HEMENGOA DA TALDEA ETA... SUFRITZEN DUT. SALBA EGINGO DA, BAINA JUSTU-JUSTU.



JON ANDER
(SANTUTXU)

DEPENDE ZER JOKATZEN DUEN. IAZ UFAREKIN

GEHIAGO SUFRITU NUEN. AURTEN PARTIDU BATZUETAN BESTEETAN BAINO GEHIAGO.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Doce Amigos etxe multzoa eraitsiko dute eta bertan pisu berriak egingo dituzte

Bilboko Udalak 60 etxebizitza berri iragarri ditu zaharren lekuan

Bilboko Udalak Doce Amigos etxe multzoa eraitsiko duela iragarri du. Erabaki hori auzoko bizilagunen oniritziarekin hartu duela argitu du, baita bertan 60 etxebizitza berri egingo dituela agindu ere. Inguruetan aparkalekuak eta lorategiak atonduko dituzte.

Uribarrin dago Doce Amigos etxe multzoa, Artxandako hegian, Maurice Ravel etorbidearen oraindik ere autobidearen bestaldean. Hiru bloke dira, bata besteari atzean ipinita, bakoitza hiruna pisukoa: behekoa eta solairu bi. Bilboko Udaleko Hirigintza arduradunek zehaztu dutenez, etxeok azken urteotan degradatu egin dira, azken urteotan ugazabek ez dituztelako behar bezala zaindu. Horren ondorioz, Udalak 'infraetxebizitza' gisa sailkatu ditu.



Etxebizitza horiek egoera kaxkarrean daudela ikusita, Bilboko Udalak Plan Nagusia aldatu du bertan hirigintza operazio bat egin ahal izateko. Helburua da etxe zaharrak, hiru blokeok alegia, eraitsi eta haien orubean berriak egin.

UDAN BOTAKO

Etxeok laster bota behar dituzte. Lanak, udal arduradunek iragarri dutenaren arabera, udan hasiko dira. Honez gero asko dira bertatik alde egin duten bizilagunak. Kanpotik erraz antzematen da etxebizitza batzuk hutsik daudela, leihoak adreiluz edo oholez estalita dauzkatelako.

Hiru blokeok eraitsi eta asmoa da 2008an etxe berriak egiten hastea. Sei altuerako bloke berri bi egingo dituzte bertan. Denetara 60 etxebizitza berri izango dira, bi eta hiru logeladunak.

Etxeak ez ezik, garajeak be egingo dituzte orube horretan. Guztira 130 autorentzako lekua edukiko du aparkaleku berriak.

Gestioari dagokionez, Bilboko Udalak normalean baino protagonismo handiagoa hartuko du operazio horretan. Normalean konpentsazioa izaten da funtzionatzeko modua, ugazaben esku utziaz eskubide eta betebeharen banaketa. Oraingo honetan, ostera, kooperazio sistema bat sakatu du Bilboko Udalak eta, horren ondorioz, berau izango da birpartzelazio proiektua idatziko duena.

ETXEZURI

Etxebizitza berriak Etxezuri kalean egongo dira. Bilboko Udalak hirigintza planak aldatu ditu proiektu berriekin Etxezuri eta Aldamiz kaleen arteko lotura errazteko.

Gainera, belardiak ere paratuko dituzte alderdi horretan eta bertoko zuhaitzak ipiniko dituzte bertan.

Boluetako etxe zaharrenetako bateko horma beheara etorri zen

Goizaldean gertatu zen arren, inor ez zen zauritu

Boluetako etxe zahar bateko horma beheara etorri zen urtarrilaren 5eko goizaldean. Duela 150 urte eraikitako etxea beheara bota beharko dutelakoan daude adituak.

Baserri itxurako etxe hori Boluetako Zubibarritik hur dago, bide ondoan eta Santa Ana fabrika izan zenaren aurrez aurre. Sagarninaga kaleko 19. zenbakidun eraikina da. Etxe zabala da, pisu bikoia, eta bere baitan hemeretzi lagun hartzen zituen, denak erreteroa.

Urtarrilaren 5eko goizalde hartan etxeak berak eragindako zaratak etenbagoak izan ziren. Lekukokontatu zutenaren arabera, bizilagun gehienek gaua lo hartu ezinik eman zuten, hain ozenak ziren hornen karrankak. Goizeko seiak jo aurretik, ostera, karraskadek ondorio larriago bat ekarri zuten. Etxeko albo bateko horma beheara jausi zen, bat-batean. Batez ere lehenengo pisuko horma zatiak egin zuen beheara, balkoia eta guzti. Agerian gelditu ziren etxe barruko ur hodiak, adreiluak, garbigailua,...

Etxeko maizter batek kontatu zuenaren arabera, "gure beldurrik handiena butanoa izan zen, balkoi horretan



berriz ere aztertu eta diagnostiko bat eman ostean zer egin erabakiko du Hirigintza sailak. Aukera bi dagoz: etxea botatzea edo bestela konponketa handiak egitea.

bonbona zegoelako". Hala ere, ez zen gasik isuri eta, ondorioz, alde horretatik ez zen ezelango arriskurik sortu.

Berehala, etxeok bizilagun guztiak -17-etetik atera zituzten. Goizean, eraikina segurtatu eta gero, atzera joan ziren etxera, arropak eta beharrezko gauzak hartzera.

ETXEAREKIN ZER

Emergentzia ekipoekin batera, udal arduradunak ere bertara azaldu ziren. Julia Madrazo (EB) Hirigintza zinegotziak jakinarazi zuenez, etxe hori urrian aztertu zuten bere saileko adituek eta hartu beharreko neurriak zehaztu zituzten. Ugazabei jakinarazi ere egin zieten. Horren ondorioz, etxearen bealdea sendotu zuten, baina goialdea egiteko zegoen oraindik.

Udal teknikoei eraikina

OTSAILA 06

ROMA	340,00 Euro
BUCAREST	624,00 Euro
PRAGA	463,00 Euro
LONDRES	325,00 Euro
ATENAS	408,00 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak
 GRUPO STAR
 www.ibiltari.com

★
KAIKU
 Munduko Herrien Etxea
 Ansuaga 1 Santutxu

ADI
 ASESORIA
 FISCAL, CONTABLE, LABORAL
 JURIDICO-MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
 Tel. 94 426 08 08
 Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
 Tel. 94 411 08 55
 adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
 kontabilitatea juridikoa
 merkatalgintza**




KOLDO IZAGIRRE TXURDINAGAN.-

Arbidea kaleko euskaltegia txiki gelditu zen urtarrilaren 25ean Koldo Izagirren hitzaldia entzuteko. Asapalaren 'Irakurlearen Tartea'k gonbidatuta, pasaitar idazleak 'Sua nahi, Mr Churchill?' bere ipuin liburu berria aurkeztu zuen. Bere bisitak iziotutako jakin-minaren lekuko dira entzule etorritako idazle zerrenda: Lutxo Egia, Xabier Mendiguren Elizegi,...

AURREMATRIKULA EPEA, OTSAILEAN.-

Otsailaren 6tik 17 bitartean izango da zabalik eskola publikoetan datorren ikasturterako bi eta hiru urteko umeak izena emateko epea. Datorren irailean eskolan hasi behar duten umetxo horiek A, B eta D ereduak dauzkate aukeran.



BEGOÑAKO SANTA ESKEA, OTSAILAREN 4AN.-

Aurten berriro ere egingo da Begoñako Santa Eskea. Otsailaren 4an izango da, zapatua beraz, eta goizeko hamarretan lotu dira Txurdinagako Maiuki tabernan. Gero Arbolantxako baserrietara joango dira bertsolari eta trikitilariekin eta, eguna biribiltzeko, bazkaria egingo dute Josetxu garagardotegian.

SANTUTXUKO JUBILATUAK ETA UDALA, HURBILAGO.-

Urtarrileko lehenengo hiru asteak entzerratuta eman eta gero, Santutxuko jubilatua eta Bilboko Udala jarrerak hurreratu dituzte eta akordioa hurrago ei dago. Horren ondorioz, jubilatuek bertan behera utzi dituzte protestak. Udalak bere oinarritzko gizarte zerbitzuak lokal horretara eramateko asmoa agertu du.



TXURDINAGAKO ZAHARREN EGOITZAKO LANGILEEN PROTESTAK.-

Txurdinagako adinekoen egoitzako langileak protestak egin dituzte Diputazioa euren lantokia 'zarratzekotan' dabilela salatzeko. Gizartekitzako foru diputatu Juan Maria Aburtok esan du 'epe ertainera' beste zereginetarako erabiliko dutela egoitza hori, baina lanpostuak errespetatuko dituztela.



EAJKO BURUZAGI ASKO MARIASUN BELAMENDIARI AZKEN AGURRA EMATEKO.-

Ehunka lagun batu ziren urtarrilaren 11n Begoñako basilikan Mariasun Belamendiari azken agurra emateko asmoz. Euren artean EAJko buruzagi nagusiak azaldu ziren. Mariasun Belamendia mahatsorria EAJren Aberri Batzarraren lehendakaria izan zen. Alderdi jeltzalearen barruan, gainera, beste postu batzuk ere bete zituen. Lanbidez, Bilboko Metroaren administrazio zuzendari gisa egiten zuen behar. Begoñako basilikako hileta elizkizunetara, besteak beste, EBBko lehendakari Josu Jon Imaz, BBBko lehendakari Iñigo Urkullu eta EAJko beste burukide asko agertu zen.



Felipe Arrese Beitia (1841 - 1906)



1871ko irailaren 21a. Argala bereziki ezagutua zela erakusten duen argala.



Bere seme-ahabek Lucio eta Purificaci6n Arrese Berroges. Sus hijos Lucio y Purificaci6n Arrese Berroges.

BEGOÑAZPIK FELIPE ARRESE BEITIA OMENDU DU

OTSAILAREN 16A BITARTEAN ERAKUSKETA BAT IKUSGAI PARA DUTE IKASTOLAN

al Herriko hainbat herritarrek ibiltzera eraman baitzen. Bizkaia, el 25 de

Garbiñe Ibarra irakaslea erakusketako txoko baten.


Begoñazpi ikastolak omenaldi handia egin dio Felipe Arrese Beitia idazleari bere heriotzaren mendeurrenean. Eskultura bat ipini dute euren lorategian eta hilabetez -otsailaren 16a arte- erakusketa bat paratu dute Otxandioko olerkariaren bizitza eta kultur uzta guregana hurreratu nahian. Ikastolako ateak zabal-zabalik dagoz Arrese Beitia ezagutu gura duten guztientzat.

Testua: H.O.

Argazkiak: Berton

Urtarrilaren 16an ospakizun handia egin zuten Begoñazpi ikastolan. Egun horretantxe bete zen, hain justu, Felipe Arrese Beitia olerkariaren heriotzaren mendeurrena. Eskultura bat paratu zuten ikastolako lorategian -Jesus Torrek egindakoa- eta Otxandioko idazlearen omenezko erakusketa zabaldu zuten. Bertan, besteak beste, Karmelo Etxenagusia Bilboko gotzain laguntzailea eta Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundiko eta Bilboko Udaleko ordezkariak egin ziren.

Begoñazpi zergatik omendu duen Arrese Beitia? Garbiñe Ibarra ikastolako irakaslearen berbak dira: "Alde batetik, Arrese Beitia herio-



tzaren ehungarren urtea bete da. Bestetik, guk 35 urte betetzen doguz aurtan eta zezer egitekotan ibili gara. Eta ikastolako sortzaileetarik bat, Josune Zearra, Arrese Beitia iloba danez, omenaldia egitea erabagi dogu", argitu du.

Felipe Arrese Beitia 1841ean jaio zen eta ogibidez eskultore gisa jardun bazuen ere, gure herriaren historian leku handia lortu zuen bere idazle lanagatik. Euskaltzale amorratua, bere zortziko famatua gaur egun ere minberatzen gaitu. Begoñazpi ikastolako erakusketa hiru ataletan banatu dute. Lehenengo, Arrese olerkaria agertu dute, XIX. mendeko Lore Jokoetako bere poemak, zazpi urteko alaba hil zitzaionean egindakoa, andrea galdu zueneko, ... Erli-

Arrese Beitia idazlan bat.



jioa eta gai politikoak be zabal jorratu zituen. Horra hor, bestela, Gorbeia gurutzeari eskainitakoak edo foruen alde idatzitako artikulak.

SANTUGIÑE

Bigarren atalak bere eskultore lana dauka ardatz. Izan ere, Arresek batzuetan 'santugiñe' ezizenaz firmatzen zituen bere idazlanak, ogibidez santugilea zelako. Horretarako ikasi zuen Gasteizen eta gero Otxandio, Urkiola, Abadiño, Zornotza eta beste leku askotako elizak bere lanez apaindu zituen. Erakusketan bertan Arresek egindako San Franciscoren irudi bat eta gurutze bat ikusgai dagoz.

Bere obretako asko galdu badira ere, beste asko oraindik ere elizetan dagoz eta beste batzuk bere senideek gorde dituzte. Berbarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz egindako hamabi gizon ospetsuetarik sei familiak gorde ditu, Diputazioak zeuden lekutik kendu eta gero.

Eta hirugarren atalak Arrese Beitia euskaltzalea erakusten du. Hortxe topatuko ditu bisitariak Otxandioko idazlearen gainean argitaratutako liburuak edo 1901ean Hendaiako euskaltzaleen batzarrean parte hartu zueneko argazkia. Eta Arrese ikusiko du 1904ko abuztuan Otxandioko EAJk ospatutako jaialdian, paparrean ikurriña daukala.

Erakusketa beren-beregi prestatutako bideo batez eta 'Oi euskera' kantu ospetsuaren muntai batez biribildu dute Begoñazpikoek. Gainera, familiak utzitako gauzak

Arrese Beitia omenezko eskultura.

ere badira, Lore Jokoetan irabazitako sariak, berbarako. Bisitarien zatitza liburu bat prestatu dute, iritzirik eman nahi izan ezkerok, bertan idazteko.

"Orain arte ikastolako gurusoak etorri izan dira, gehien bat", esan digu Garbiñe Ibarra. Ikastolako ume txikienek datozen egunetan ikusiko dute eta, ostean, goi mailetako ikasleentzako txanda ailegatuko da. Edozelan be, ateak denentzat dagoz zabalik.

Esan legez, erakusketa otsailaren 16a arte izango da zabalik Begoñazpin. "Gero beste leku batzuetara eramateko asmoa daukagu: Euskararen Etxea, Durango, ...", azaldu du Garbiñe Ibarra.

Eta horrela Begoñazpi ikastolak eskurago jarri digu hainbestetan entzun edo kantatu dugun olerki ospetsu haren egilea:



Erakusketak hamar panel eta erakuslehiu bi dauzka.

*Euskaldun jaio nintzan,
euskaldun hazi,
euskera hutsik amak
eustan irakatsi
Euskera maite, maite,
zabiltz neugaz beti.
Euskera hil ezkerok
ez dot gura bizi.*

urretxindorra
megadenda

9'30etatik
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228





urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com

SANTUXU
EUSKAL
ESKOLA

iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet, 9 Santutxu 4731460
Arbidea, 21 Txurdinaga 4117656



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertan aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea: Zenbakia: Solairua:
 Herria: Herraldea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

DOHAIN

Sinadura

ORISOL (1128 M.) URKIOLA

Zeharkaldi hau egiteko auto bitan joan ginen, bata Urkiolan utzi genuen eta bestea Olaetan (Otxandio-Aramaio artean, hiru kilometro inguru Aramaio bidean). Talde osoa batera joateko joan-etorri bi egin behar izan genituen kotxe gidariok.

Urkiolako santutegi gainean dagoen azken aparkalekutik (A) irteten den bidexkatik zuzen igoko gara Urkiolagirre (1009 m.) tontorrera. Pista antzeko batetik jaitsiz Asuntze landan izango gara. Bertan dagoen Pol-Pol iturri (B) ederraren ondotik pasatuz, ezker aldetik doan harrizko pista hartuko dugu Pagaldi lepora heltzeko.


Lepo hura pasatu bezain laster eskuinaldetik doan pista (C) zabalean sartuko gara.

Aurrerago eta bidegurutze batean aurkituko ditugun zurezko geziek oso ondo markatzen dute Anboto eta Olaeta-rako bideak, baita gurea ere. Bideari jarraituz laster egongo gara Zabalandi inguruan, bertan iturria eta hiru aterpe daudelarik. Lepoan eskumarantz joko dugu baina ez goialdetik, izan ere bide hori Izpizte gailurrera baitoa, eta, guk ehun metro beherago doan pista zabaletik joan behar dugu zurigorritzko ikurrak jarraituz bai orain eta bai bide osoan ere.

Ikur horiek jarraituta, bidebanatzea ikusten dugunean ezker aldekoa hartuko dugu, laster bidexka bihurtzen delarik. Bidexka hori aurrerantzean harri artean doa eta noizbehinka arriskutsua izan daiteke harriz harri joan behar delako. Bidexka amaitzen denean Leziaga lepoan egongo gara. Han ezkerrean doan bidexka Aramaio herri-rantz doa.

Guk korta (D) pasatu bezain laster, ezkerretik gorantz doan bidetik pagadi baten sartuko gara eta beti ikurrak jarraituz. Pendiz gogorra igo beharko dugu orain eta amaitzerakoan alderdi leunetik zehar igaro. Zabalgune bi pasatu ondoren ezkerretara joko dugu azken aldapa harkaitzetatik igotzeko Orisol (1128 m.) gailurra gainditu arte. (Bi ordu eta laurden).

Tontor ondoan harkaitz batean Izpizte, Anboto eta Gurutzeta norabideak daude idatzita. Gailurreratik Gurutzeta bidea hartuz Santi-Gurutz baselizarekin (E) egingo dugu topo hamabost minututan. Santi Gurutzetik aurrera eta zerbait beherantz zuri gorritzko ikurrak jarraitzen baditugu Gurutzeta mendatera joango gara. Baina kontuz, guk baseliza pasa eta hirurogei bat metro-



tara beherantz eta eskumarantz joko dugu pagadian zehar, ikur zaharez markatutako bidexka bat aurkitu arte. Bide honek etxola (F) bateraino eramango gaitu, handik aurrera beti beherantz eta ikurrak galdu gabe, pista batzuk zeharkatuko ditugu.

Azkenean bidexka hori pista batean amaitzen da. Pista horretatik pixka bat ezkerretarantz jarraituz, eskumarantz doan beste pistatik sartuko gara nekosta zuhaitzen artean, laster zuhaitz adarrez egindako arategi baten ondotik pasatuko gara. Aurrerago lehen bidebanatzean eskumako pista hartu eta beti beherantz Aramaioetik Olaeta kontzejura doan errepidera helduko gara. Handik aurrera errepidetik hiru bat kilometro ibili ondoren Olaeta auzora helduko gara.

Orisoletik Olaetara ordu bat.

Sastreaia
EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navegala.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
O.P.E. 039/97
94 412 82 74

MESÓN
URETXE
Santutxuko poteo gunean

ALAIN URIZAR

"Enpresa gizartearen errealitatearen isla besterik ez da"

'Ekonomia eta enpresa antolamendua' liburua plazaratu du mahatsorriak

Enpresa munduko gaia bere osotasunean euskara hutsez lantzen zuen liburu-rik ez zegoela ikusita, Alain Urizarrek eta Unai Martinez de Lizarduik 'Ekonomia eta enpresa antolamendua' izeneko liburu didaktikoa sortu dute. Egileek diotenez, "liburuak eskaintzen dituen 150 ariketa berrien sormen eta kalkulu lana izan da lanik nekezena. Errazena agian orain dator, urtetako lanaren fruituaz gozatzea". Alain santutxuarra, informatika ingeniaria da eta Unai enpresa eta ekonomian aditua. Gazte bi hauek liburua egitean, Euskal enpresen munduan diharduten hainbat egitasmo hurbiletik ezagutzeko aukera paregabeaz ohartu eta asko ikasi dutela esan digute.

Testua: **Arrate Diez**
Argazkiak: **BERTON**

Zelan animatu zineten enpresa munduko gaiak lantzen dituen liburua egitera?

Gai hau bere osotasunean lantzen zuen eta euskara hutsean zegoen liburu-rik ez zegoela ikusi genuen eta hutsune hori betetzeko asmoarekin ekin genion liburu hau idazteari. Liburuaren edukiak 10 atal nagusi ditu, eta atalok teoriarik eta ariketetan banaturik daude. Hau da, atal bakoitzak bere teoria eta ariketa propioak ditu.

Nori zuzendua da 'Ekonomia eta enpresa antolamendua'?

Irakurle mota guztiei zuzendutako liburua da. Bereziki Batxilergoko 2. mailan gai hau lantzen duten ikasle-irakasleentzako funtsezko tresna dela uste dugu.

Noiz hasi zineten liburua prestatzen?

Duela bi urte hasi ginen egitasmo hau martxan jartzen, eta ordu asko sartu behar izan ditugu Gaiak Argitaletxeak argitaratu duen liburua antolatu, eztabaidatu, idatzi eta biribiltzeko.

Zein izan da lanik zailena? Eta errazena?

Material guztia ordenatu eta eguneratzea ez da lan makala izan, baina batez ere liburuak eskaintzen dituen 150 ariketa berrien sormen eta kalkulu lana izan da lanik nekezena. Errazena agian orain dator, urtetako lanaren fruituaz gozatzea.


Zer nolako harrera izan du orain arte?

Oso ona. Egia esan ez genuen espero horrelako harrera izango zuenik. Azken finean, euskaraz horrelako material berri-

Dordoka
TABERNA
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33



tzailerik ez zegoen orain arte eta behar hori aspaldi bazegoela sumatu egin da.

Zein izan da zure lana zehazki Alain? Aurretik halakorik egin izan duzu? Eta ondorioak animatzen zaitu halako ezertan berriro ere parte hartzen?

Egia esanda, egile egilea Unai izan da, hau da, bera da enpresa eta ekonomian aditua, eta esan daiteke edukia berak sortu duela gehien bat. Nik informazio guztia antolatzen, ariketak sortzen eta idazten lagundu egin diot. Aurretik halakorik egin dudana? Ba ez, ideia pare bat izan genituen beste batek eta nik unibertsitate garaian baina ez ziren aurrera joan. Oraingo hau esperientzia polita izan da, baina liburu bat egiteak horrenbesteko lanik zekarrela ez nuen uste. Ondo legoke aurrerantzean beste horrelako zer edo zertan parte hartzea, baina ez dakit ba... Unai badu esperientziarik, 'Mundu globalizatua ulertzeko oinarriko kontzeptuak' liburua argitaratu baitzuen duela bi urte.

Ekonomia eta enpresa gaietan erabilgaitako lengoia moldatu behar izan duzue irakurlearentzat ulergarria izan dadin?

Zalantzarik gabe. Liburuak espresuki didaktikoa eta ulerterraza izan behar zuela argi genuen hasieratik bertatik, eta horretan saiatu gara. Horrek ez du esan nahi gaiak eskatzen duen seriosuna mantendu ez duenik. Halabeharrez gai batzuek lengoia tekniko era-

biltzea eskatzen dute.

Laguntzarik behar izan duzue lan hau kaleratzeko?

Gehienbat urtetako esperientziak eta ondare bibliografiko zahar zein berriek eskaini digute laguntzarik handiena. Euskal enpresen munduan diharduten hainbat egitasmo hurbiletik ezagutzeko aukera paregabea izan dugu. Guk ere asko ikasi dugu.

Zelan ikusten duzue euskara egungo enpresa munduan?


Lan asko egiteke dago inongo zalantzarik gabe. Gu guztion esku dago. Azken batean, enpresa gizartearen errealitatearen isla besterik ez da, eta euskarak gizartearen egun bizi dituen une gogorren enpresan ere islatzen dira.

Zuen ikasle denboratan halako lanik izatea euskaraz amets bat besterik ez zen, ala?

Egun, lan asko egiteke geratzen da. Horrelako urratsak garrantzitsuak diren arren, bidea luzea da. Gure ikasle denboratan ere bazeuden euskaraz idatzitako liburu teknikoak, asko ez egia esanda, baina batzuk bai. Gaur egun gehiago daude baina arlo honetan hutsune nabarmena dago.

Egun enpresa bat sortzen animatuko zinatekete liburuko gauzak aplikatuta?

Nork daki. Orain momentuan ez, baina aurrerantzean, nork daki.



EKONOMIA ETA ENPRESA ANTOLAMENDUA
Unai Mtz. Lizardui / Alain Urizar
BATXILERGOKO 2. MAILA

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Sagardotegi denboraldia hasi danetik... non demontre sartzen zara zapatueta?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Parranda gehiago egitea komeni jatzu. Gitxi egiten dozuz.



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
A ze para, barraskilo eta barea! Seguru zagoz?



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Aginduak emoten ona zara gero! Zuk ha esan eta beste guztiok amen erantzun!



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Urtebarri ekarri, txarri belarri, dekonak ez dekonari emotea sarri... Kopla zaharrak argi emoten dau urtarrileko aldatsa igoteko errezeta.



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Interneten ordu larregi sartzen dozuz. Len txata, orain bloga, bihar batek daki zer... Pantaila aurpegi hori kendu ezinik ibiliko zara!



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Eskietan trebe-trebea ei zara. Baina kontuz, edur zuria-zen azpian edozer gauza egon leike.



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Holan segidu ezker, txarribodetan masterra atarako dozu. Negua sasoi zantarra dala entzun beharra be!



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Patrikerako telefono barri horregaz ligako dozula sinisten dozu? Amaman okaranak!



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Eder-ederra da, eh? Harrapatu zaitu, bai horixe! Ea berak be holan ikusten zaituen!



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Anoetako derbiaren gorabeherek zure bihotz taupaden erritua aldatu ebezan. Martxora arte, gitxienez, ez ikusi Athleticen partidu gehiago.



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Ahalmenak galdu dozuz, baina ez etsi. Igoal laster atzera etorriko jatzuz.

agenda

OTSAILAK 3

PIZTIAK. KONTZERTUA. KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

OTSAILAK 4.

BEGOÑAKO SANTA ESKEA. GOIZEKO 10:00ETAN TXURDINAGAKO MAIUKI TABERNAN.

OTSAILAK 10

PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA. HERRIRA PLATAFORMAK DEITUTA. 20:00ETAN. RITXI PLAZAN.

OTSAILAREN 17-19

DEUSTUKO ARATUSTEAK

OTSAILAK 19

'EUGENIA ARDIAREN BIDAIAK'. GAR PRODUKZIOAK. UMEENTZAKO ANTZERKIA. BILBOROCK. 12:00ETAN.

OTSAILAK 22

JUAN KRUZ IGERABIDE. ASAPALAREN IRAKURLEAREN TARTEA. ARBIDEA KALEKO EUSKALTEGIA. 20:00ETAN.

OTSAILAREN 23-28

BILBOKO ARATUSTEAK



GABRIEL ARESTI BHI

DBH - BATXILERGOA
B - D EREDUAK



Artalendio, 5
48004 Txurdinaga-Bilbo
Tfnoak: 94 4127500 - 94 4127412
Faxa: 94 4113337

E-mail: gabriel.aresti@bezeroak.euskaltel.es

- ◆ Jantokia
- ◆ Autobusa
- ◆ Eskolaz kanpoko ekintzak
- ◆ Kultur ekintzak
- ◆ Kirol instalazioak
- ◆ Orientazio zerbitzua

Bilbaon
urte askoan
Euskaraz

irakasten
eredu

BERTON ALDIZKARIA INTERNETEN:

www.asapala.org

www.topagunea.org

KARMELO IKASTOLA

SANTUTXUKO IKASTOLA GARA

Menendez Pelayo 12-14 48006 Bilbo
Tfnoa: 944333001, Faxa: 94338759
e-mail: 014510aa@hezkontza.net



www.karmeloikastola.com

- EUSKAL EREDUA. Modelo euskaldun.
- IKASTOLA PUBLIKOIA
- 41 URTE EUSKAL IRAKASKUNTZA BERMATZEN 41 años de experiencia enseñando en euskera.
- 2 URTEKO GELAK. Aulas de 2 años.
- INGELESA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK 4 URTEK AURRERA. Inglés y nuevas tecnologías a partir de los 4 años.
- JANTOKIA ETA AUTOBUSA Comedor y autobús
- ORDUZ KANPOKO JARDUERAK EUSKERAZ Actividades extraescolares en euskera
- AUZOKO BIZITZA ETA EKINTZETAN PARTAIDE ETA BULTZATZAILA Participamos e impulsamos activamente las actividades culturales del barrio